





AGURAINGO ABERE AZOKA,
Ohitura eta ospakizunei, etena



Besteak beste, Euskal Herriko mendiko zaldia arrazako lehiaketa egiten da urriko lehen astearteko azokan. ALEA

Huts egingo du 625. edizioak

1395. urtean egin zen lehen aldiz Aguraingo abere azoka, eta ordutik, oso gutxitan egin du kale topaketak; gerrateek eta izurriteek baino ez dute zapuztu Euskal Herriko azoka zaharrena.

MIRIAN BITERI

Irrikaz egoten dira aguraindarrak urriko lehen asteartea noiz helduko; izan ere, Euskal Herriko azoka zaharrena ospatzen dute egun horretan. Hain justu ere, 625. edizioa izango litzateke aurtengoa, baina koronabirusak Arabako urteko hitzordu esanguratsuenetarikoa bat zapuztu egin du.

Historian nabarmen atzera egin behar da azokaren jatorria topatzeko. Zehazki, 1395. urtean eskatu zion Pedro Lopez Aiakoak Gaztelako errege Enrike III.ari haren eskuetan zegoen hiribildu horretan hainbat egun iraungo zuen azoka bat egiteko baimena. Urte horiek guztietan gutxitan

huts egin du aguraindarraren azokak; orain arte, gerrateak eta izurriteak izan dira ekidin duten ia bakarrak. Lehen eta bigarren karlistaldietan, esaterako, bertan behera geratu zen, eta 1936an ere ezin izan zen egin, Francok hala erabakita.

1918ko gripea

Izurritei dagokienez, 1885. urtean azaro hasierara atzeratu zuten koleragatik, eta 1918. urteko gripea dela eta, berriz, azokarik ez izatea erabaki zuten garai hartako antolatzaileek. Mende bat beranduago, erabaki bera hartzera behartuta egongo dira gaur egungo antolatzaileak.

Urte askoan oso ezaguna izan zen Aguraingo azoka Euskal Herri osotik nahiz kanpotik iritsitako abeltzainak elkartzen

zirelako, askotariko ganadua trukatzeko. Gaur egun, baina, zaila da abeltzainen arteko tratua bat ikustea, eta topaketak bestelako norabidea hartu izan du. Euskal nekazaritza sektorearen erakusleirio garrantzitsua bihurtu da: arraza ezberdineko behi, ardi, ahuntz, asto, oilo eta txerriak egoten dira ikusgai.

Horiez gain, zaldi onenak ere batzen dira azokan, Euskal Herriko mendiko zaldia arrazako lehiaketan parte hartzeko. Aguraindarraren eta inguruko artean ikusmin handia sortzen duen beste lehiaketa bat ere badago egun horretan; hain justu, Arabako Artzain Gazta lehiaketa, aurtengo jaiei begira antolatu izan den ekimen bakarra. ■



Larreakoa da gaztarik onena

Igandean egin zuten Arabako Artzain Gazta lehiaketa, Aguraingo kiroldegian; denera, 12 gaztagile aurkeztu ziren eta Larreako Patxi Lopez de Uralderena gailendu zen beste guztien gainetik.

MIRIAN BITERI

Publikorik gabe egin zen pasa den igandean, Aguraingo kiroldegia hartutako Arabako XXXIV. Artzai Gazta Idiazabal Baserrikoa Lehiaketa, egungo egoerak eskatzen dituen neurri guztiak errespetatuz. Bertan, agerian geratu zen, beste behin ere, kalitate handiko gaztak egiten dituztela herrialde osoetik sakabanatuta dauden gaztagileek.

Hamabi gazta aurkeztu ziren Euskal Herriko lehiaketarako puntuagarria zen ekimenera, eta lehen hamarrak sailkatu ziren: Larreako Patxi Lopez de Uralderen gazta izan zen notarik onena lortu zuena, 327 punturekin; jarraian, 304 punturekin, Agiñigako Larrabe auzoko Agiñiga; Araiaiko Lekuona; Legutioko Iruri; Ilarduiako La Leze; Munaingo


Zabaleta; Araiaiko Aित्रa; Galarretako Azkarra; Oletako Kerixara eta Haranako Josu San Vicenteren gaztak sailkatu ziren.

Agurainen lortutako saria ez da Patxi Lopez de Uraldek azken asteotan eskuratu izan duen bakarra. Irailaren 11n izandako Ordiziako XLVII.

Ardi Gazta lehiaketa ere irabazi zuen Larreakoak; Araiaiko Unai Lekuonak bigarren geratu zen bertan. Ikusteko dago orain urriaren 11n, Idiazabalen egingo den Euskal Herriko txapelketan nor gailentzen den; arabarra izango ote? ■



Aguraingo kiroldegian egin zen dastatzea eta ondorengo sari banaketa. BELEN LANDA



"Egoera zaila da, eta urtebete egon gaitezke festa gabe"

JULEN ARBAIZA ETA MAIDER AGIRRE AGURAINGO TABERNARIAK

Aguraindarrak Rosarioko Ama Birjinaren omenezko jaietan murgilduta egon beharko lirateke urriaren 3tik 11ra, baina, gainerako tokietan gertatzen ari den bezala, bertan behera geratu da guztia. Herriko tabernariak, dena dela, kezkatuta daude eta "zentsuz jokatzeko" dei egin nahi izan diete herritarrei.

MIRIAN BITERI

Aguraingo Jose Mari jatetxea, *Gordo*, eta Dana Ona jatetxea, *Sarayola*, kudeatzen dituzte Julen Arbaizak eta Maider Agirrek. Datozen egunotan, "ez festetan" gertatu daitekeenarekin arduratuta daude; are gehiago, pasa den asteburuan Ertzaintza tabernaz taberna langileak identifikatzen, ezarritako neurriak betetzen diren kontrolatzen eta abisuak ematen ibili zirela ikusi ondoren. Herritarrei "zentsuz jokatzeko" deia egin diete. **Martxotik hona igarri al duzue aguraindarren artean ohitura aldaketarik?**

Julen Arbaiza: Bai. Egoera aldatu egin da eta denetarik dago orain. Badago beldurra duen jendea, batetik; eta bestetik, paso egiten duena. Azken hauek uste dute lehen bezala egon daitezkeela tabernan eta hori ez da horrela.

Maider Agirre: Bat nator esandakoarekin. Ahaztu egiten zaizkigu gauzak; ez gaude egon behar garen bezala. Beldur gehiago eduki beharko genuke. Nik bizitza osoa daukat jokoan tabernan, eta haserretu egiten naiz besteen jokaera



Maider Agirre eta Julen Arbaiza, Agurainen. M.B.

okerrengatik nik taberna itxi beharko dudala pentsatzean, edo isuna ordaindu beharko dudala.

J.A.: Tabernariok adi egon behar gara bezeroak neurriak hartuta sartzen diren edo ez, eta nekeza da egun guztian horrela ibili behar izatea. Nahikoa lan dugu barra atzean dugunarekin.

Bezeroek non egiten dute bereziki kale?

M.A.: Maskararena soinean ez eramatearena izaten da ohikoena. Tabernan maskara gabe sartzen dira asko, eta

jartzeko eskatzean, autoan ahaztuta utzi dutela erantzuten dizute.

J.A.: Askok, bestalde, ez dute ulertzen eserita egon behar dutela. Tragoxka batzuk hartzen ari direla esaten dizute eta barran zutik geratzen dira. **Negua, gainera, ate joka dago eta hotzarekin zaila izango da kanpoan egotea...**

J.A.: Hala da. Agurainen hotz handia egiten du, eta datozen hilabeteotan muga hori izango dugu. Terrazak kentzen baditugu, taberna barruan egon beharko dira bezero guztiak eta



oso zaila izango da distantziak mantenduz eserita egotea. Guk biok, zorionez, taberna handiak ditugu, baina txikiak dituztenek... Ziurgabetasuna da nagusi tabernarion artean.

M.A.: Argi dagoena da ezin dela berriro ere dena gelditu; hori ezinezkoa da.

Negua baino lehen, dena dela, Aguraingo "ez jaiak" daude. Zer nola aurreikuspenak dituzue?

J.A.: Datozen egunei begira ere ez dakigu nola jokatu ez dakigulako jendea egongo ote den. Dena dela, nik neuk beldur asko diot, bereziki lehen egunari, larunbatari. Gu prest gaude baina ez dakit jendearen jarrera nolakoa izango den; ezingo gara egon arreta deitzen. Egia esan, herria egunotan nahiko lasai dago, baina egun batetik bestera dena aldatu daiteke.

M.A.: Ez gaude tabernak ixteko moduan. Kontuan izan behar dugu ez garela gu bakarrik, langile asko ditugula eta horiek mantendu behar ditugula.

Zer nolako mezua bidaliko zenukete datozen egunei begira?

M.A.: Zentzuz jokatzeko deia bidali nahi diet aguraindarrei.

Denon artean, gauzak ondo egiten baditugu, dena ondo joango da. Neurriak bete egin behar dira: esaterako, badakigu ezin garela hamar lagun baino gehiago elkartu; hortaz, saiatu hori betetzen, mesedez.

Bestalde, tabernara eskatzen sartzerakoan, bat bakarrik sartzearekin nahiko; ez da kuadrilla guztia sartu behar.

J.A.: Horrekin lotuta, ez dakigu kuadrillen asmoa zein den. Baina, kontuan izan behar dute 20 lagun baldin badira, ezin direla denak batera egon.

"NORMALA DA ATERA NAHI IZATEA, BAINA ZENTZUZ JOKATU BEHAR DA"

MAIDER AGIRRE, TABERNARIA

"BELDUR ASKO DIET FESTEI, BEREZIKI LEHEN EGUNARI, LARUNBATARI"

JULEN NARBAIZA, TABERNARIA

Egoera zaila da eta urtebete jai gabe bat egon gaitezkeela uste dut; datorren urtean, birritan ospatuko ditugu.

M.A.: Hori da. Gogoan izan behar dugu aurten ez dagoela jairik. Badakigu gauean ez dela ezer egongo, eta, beraz, beldur naiz egunez gertatu daitekeenarekin. Alde batetik, normala da atera eta tabernetan egon nahi izatea egun bereziak direlako, baina zentzuz jokatu behar da.

J.A.: Bestela, orain arte egindakoak ez du ezertarako balio izango. Ezin dugu atzera egin. Nik ere nahiko nuke taberna eta jatetxea beteta egotea, baina ezin da.

M.A.: Aguraindarrek argi izan behar dute ez garela kexatzen lan egiteagatik, guk lan egin nahi dugulako eta horretarako gaudelako, baina ezin gara jendearen atzetik egon.

Tabernan zerbitzatzen egoteaz gain, lan osagarriak ere badituzuelako, besteak beste...

M.A.: Hori da. Adibidez, tabernak orain arte garbi bagenituen ere, pandemiaren kontuarekin, askoz gehiago garbitu behar da guztia. ■




Saskian dator aldaketa

Hizkuntza ohiturak eta kontsumitzeko ohiturak aldatzeko helburuarekin heldu zen joan den udan Ekonomatoa Agurain erdialdera, eta dagoeneko 200 bat lagunek egin dute bat egitasmoarekin.

ANAKOZ AMENABAR AGURAIN

Egitasmoak eten edo bertan behera geratzen diren garai hauetan, bada pozteko albiste bat Agurain aldean. Ekonomato bat ireki zuten uztailean Kale Nagusian, eta gero eta gehiago dira egitasmora batzen ari direnak. Izan ere, ez da ohiko denda bat; Lautadako Euskararen Komunitateak abian jarritako proiektua da, hizkuntza-ohiturak euskarara eramateko helburuarekin prestatutako gunea, 200 bat bazkide dituen dagoeneko.

Helburuak betetzen ari dira, Asier Lafuente Lautadako Euskararen Komunitateko kideak azaldu moduan. Horien artean nagusia hizkuntza ohituretan eragitea. Astean hiru egunetan zabalik den denda –astearte, ostegun eta larunbatetan– hainbat boluntariok egiten dituzte saltzaile lanak, eta irizpide jakin batzuen arabera dituzte salerosketa harremanak eroslearekin. Bezeroek euskaraz ulertu eta hitz egiten baldin badute, ohiko elkarrizketak euskaraz izango dira. Euskara ulertu bai, baina ohituragatik edo hitz egiteko gai ez direlako egiten ez dutenei ere euskaraz egingo diete boluntarioek. "Zailtasunez ulertzen dutenekin euskara egokitu beharko dute saltzaileek: esaldi motzak, aditz errazak, mantsoago...", azaldu du Lafuentek. "Eta erdaldunak



Ostegunero, produktu freskoak jasotzeko eskaera egin daiteke. LEK

direnekin ere gutxieneko elkarrizketa euskaraz izango da; haiek ere badakite, eta prest daude dendara etortzen direnean".

Tresna horiekin hizkuntza portaerak aldatzeko helburua betetzen doa, baina ez da

ekonomatoak duen xede bakarra. Besteak beste, Lautadako produktuek dute lehentasuna, eta Euskal Herriko beste produktu batzuekin osatu dituzte apalategiak; horien artean, produktu ekologikoei ere lehentasuna eman diete.



"Balore etikoetan ekoiztuak eta nekazaritza ez-produktibistan oinarritutako produktuak" eskaintzen dituzte, ekologiko ziurtagiria dutenak edo gabe. Lautadako barazkiak, eztiak, irinak, fruitu lehorrak, ogia, lekaleak, gaztak, kontserbak, arrautzak, hestebeteak, pattarrak, belarrak... nahi beste aurki daiteke bertan, baita artisautza, garbiketa eta kosmetika produktuak ere. Gainera, produktu fresko batzuen eskaera egin daiteke, eta ostegunetan jaso.

Ekonomatoan ekoizleen lana nabarmendu nahi dute, eta horregatik zuzena da eurekin harremana. "Haiek zehazten dute jaso nahi duten diru-saria, eta ekonomatoak ehuneko zehatz batzuk aplikatzen dizkie ekoizleek jarritako prezioei", azaldu du Lafuentek.

"Dendarekin ez dugu irabazi asmorik, baina ekonomatuaren gastuei aurre egin nahi diegu, eta irabazirik izatekotan Lautadako Euskararen Komunitatearen egitasmoak finantzatzuko ditugu".

Aldaketa, taldean

Auzolanean osatu dute egitasmoa, eta bertan izena emateko ere modu kolektiboan egitea proposatu diete kideei, talde txikietan ahal izanez gero. "Gure helburu nagusia hizkuntza-ohiturak aldatzea da, eta horiek beti modu kolektiboan aldatzen dira, horregatik proposatu diegu jendeari era honetan egitea", azaldu du Lafuentek. Komunitateari buruzko argibide guztiak lautadaneuskaraz.eus webgunean jaso dituzte, ekonomatoan izena emateko esku-orriarekin batera. ■



Astean hiru egunetan irekitzen dute boluntarioek denda. LEK

RESTAURANTE
• Habitaciones •

el GORDO
JOSÉ MARI
JATETXEA
DESDE 1893

Nagusi Kalea 69
Agurain, Araba
Tel.: 945 30 0042

WWW.FACEBOOK.COM/IBAIA.GARAGARDOTEGIA

IBAIA
DULANTZI KALEA 5
AGURAIN

200 KUDA

TELEFONOA
945 30 19 69

BAZKARIAK · AFARIAK · BOKATAK
PIZZAK ETA ROCK & ROLL

KASKAZURI

KASKAZURI

DISCO BAR
KASKAZURI
Kale Nagusia 33 · AGURAIN

CAFE-BAR
Mendibil
AGURAIN

SAN JUAN PLAZA

C/ Mayor, nº1 Bajo
01200 Agurain

TEL:
945 56 50 06

"Pertsonaia pentsatzea eta eraikitzea izan da zailena"

IRATI SAEZ DE URABAIN 'AKELARRE' PELIKULAKO AKTOREA

Pablo Agüero zuzendariaren bosgarren filma da 'Akelarre'. XVII. mendeko Euskal Herrian sorginkeria leporatu zieten neska batzuen istorioa kontatzen du; Irati Saez de Urabain aguraindarrak parte hartu du.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Aste honetan estreinatu da *Akelarre* filma. Pablo Agüeroren azken lana Euskal Herrian filmatu dute, eta Donostiako Zinemaldiaren 68. edizioko sail ofizialean lehiatu da. Irati Saez de Urabain (Agurain, 1998) pelikula berriaren talde artistiko gaztean ere estreinatu da, sorgin-ehizaren biktimetako bat den Olaiaren paperean. **Nola suertatu da pelikulan parte hartzeko aukera?**

Kasualitatea izan da. Topatu nuen *facebook*en iragarki bat, *Akelarre* pelikulan aktoreak bilatzen ari zirela, eta argazki bat eta datuak bidaltzea eskatzen zuten; eta bidali nituen, probatzeko.

Aurretik esperientzia zenuen aktore lanetan?

Ez, interpretazioan ez dut esperientziarik. Egin izan dut antzerkia urte batzuk, baina oso gauza txikiak.

Casting-era deitu zizuten ondoren?

Bai, castingera joan nintzen Gasteiza eta Donostiara, hiruzpalau egin nituen; eta jada kontuarekin ahaztuta nengoela deitu zidaten pelikulan nengoela esateko. Sorpresa handia izan zen, eta erantzukizuna ere. Azken finean, nire burua hor ikusten

nuen, baina ez nekien ezer mundu horri buruz, ez nekien gai izango nintzen. Gainera, esan zuten 800 emakume inguruk parte hartu zutela proba horietan... eta ni aukeratu ninduten! Ez nekien maila nahikoa izango nuen.

Filmazioa hasi aurretik zer prestaketa egin behar izan duzu?

Aktore sekundarioak bost emakume gara, eta gure prestaketa berezia izan da, koreografia eta abesti batzuk prestatu behar izan ditugulako, eta, horrenbestez, hiru edo lau hilabete lehenago hasi gara lanean, kantu eta koreografia klaseekin.

Ondo moldatu zara filmazioan; zailtasun berezirik izan duzu?

Gure artean oso gustura egon gara, eta oso giro polita egon da taldean. Ni lehen momentutik oso ondo sentitu naiz haiekin; azkena izan naiz hasten, eta oso ondo hartu naute. Egia da, batzuetan, filmazioan galduta sentitu naizela, hainbat kontu tekniko direla edo plangintza aldetik ez nituelako ezagutzen, baina egia esan ekipoak eta lantaldeak oso erraz jarri digute dena.

Zer paper egin duzu pelikulan?

Olaia du izena pertsonaiak. Sorginkeria leporatzen dioten neska gazte horietako bat da.

Taldean pertsonaiak oso markatuak daude, eta Olaia, adibidez, oso pertsona alaia da, kanpora begira beti, txisteak egiten dituen, oso baikorra, momentu txarretan besteak animatzen saiatzen da. Baikorra da, batzuetan gehiegi, eta eskuetatik ihes egiten dio.

Zein izan da zuretzat filmazioaren zatirik zailena?

Orokorrean pertsonaiaren garapena pentsatzea eta pertsonaia eraikitzea. Zuzendariak irizpide eta ezaugarri batzuk ematen dizkizu, baina pelikulan erakusten den pertsonaiaren atzetik badago lan bat; izaera guztia eraikitzea izan da zaila. Dena den, bilatzen zutena emakume talde bat zen, eta pelikula ikusten duen edozein identifikatzea talde horrekin edo pertsonaia horrekin, eta Pablok nahi zuena zen gutako bakoitzetik ere ekarpena egitea, gure izaera adieraztea.

Eta filmazioaren zatirik politena?

Oso gustura egon naiz, eta atsedenetan ere topera egon gara, oso ondo; ez naiz galduta sentitu, beti egon garelako elkarrekin. Gainera, leku ikaragarriak ezagutu ditut: Sakoneta eta Laga, adibidez. **Pozik zaude pelikula izaten ari den harrerarekin?**



Irati Saez de Urabain 'Akelarre' pelikulako aktorea, Donostiako Zinemaldian.

Zinemaldian egon garen bitartean pelikularen kritikak etengabe ikusten ibili gara sare sozialetan, kar, kar. Denetarik dago. Oso onak batzuk eta beste batzuk ez hain onak. Baina niri, orain, gehien interesatzen zaidana da nola ikusi gaituzten aktoreak eta publikoaren erantzuna.

Urduri zaude zure inguruak nola hartuko duen?

Zinemaldian ahaztu naiz horretaz, baina orain berriro piztu zait urduritasuna. Beldur pixka diot jendeak nola ikusiko nauen eta denbora guztian ni ikustea, Irati, eta ez pertsonaia. Agurainen, gainera, hilabete amaieran estreinatuko da eta erantzukizun handia da.

Jendearen aldetik harrera oso ona izan da, gurasoak egunero zoriontzen dituzte, eta asko poztzen nau. ■■■



AGURAINGO

JAI AK 2020

ABERE AZOKA

Arduragatik, aurten EZ!

ESTE AÑO NO TOCA, TAMPOCO EN AGURAIN, POR RESPONSABILIDAD



AGURAINgo

UDALA